XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1589

EBAZPENA, 2020ko martxoaren 9koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, zeinaren bidez onartzen baitira Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (Euskotren) enpresak emandako zerbitzurako tarifak, 2020ko ekitaldiari dagozkionak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Eremu Influentzialetan.

Euskadiko Prezioen Batzordeak 2020ko martxoaren 9an egindako bilkuran hartutako Erabakiaren xedapen-zatia argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan sartu da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak 2020. urterako dituen eremu influentzialetako trenbideari dagozkion tarifak berrikusteko eskaera.

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (Euskotren) enpresak ematen dituen zerbitzuei dagozkien tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia-erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege-Dekretuaren 16.4 artikuluari jarraikiz (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori, otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuak (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduak (uztailaren 64ko EHAA, 128. zk.) xedatutakoaren arabera.

2010eko ekainaren 15eko Aginduaren 9.1 artikuluaren arabera, tarifen indarraldia, gutxienez, urtebetekoa izango da. Hala ere, bigarren paragrafoak honako hau esaten du: «Espedientean egiaztatutako gorabehera bereziak sortzen badira, Euskadiko Prezioen Batzordeak, ofizioz parte interesdunak eskatuta, indarraldi txikiagoko tarifak baimendu ahal izango ditu, nahiz eta igaro gabe egon 1. paragrafoan zehaztutako aldia».

Aipatutako arauak ekonomia-oreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, bizitza-kostuarekiko prezioak osatzeko tresnak zaintzekoak ere badira.

2020. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertuta, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua ematearen kostu-egituraren barruko kontzeptuetara egokitzen direla uste da.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SAk emandako zerbitzuari dagozkion 2020. urterako tarifak baimentzea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren fluxu-eremuetan, kontzeptu eta zenbatekoetan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Bidaiarien Nahitaezko Asegurua barne. Hona hemen kontzeptu eta zenbateko horiek:

a) Linea nagusia.

	Gipuzkoa			
Gunea	A diru-txartela	A Anonima	Diru-txartel Gaztea	Joana
1	0,96	1,26	0,77	1,85
2	1,43	1,87	1,14	2,75
3	2,65	3,47	2,12	5,10
4	3,87	5,07	3,10	7,45

b) Tarifa murriztuak.

			M Mugi	M Barik	M Bat
Trena	Gipuzkoa	1	0,46	0,96	0,96
		2	0,69	1,43	1,43
		3	1,27	2,65	2,65
		4	1,86	3,87	3,87

Bigarrena.– Erabaki honek 2020ko apirilaren 6tik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 9a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JORDI CAMPÁS VELASCO.